



AYUNTAMIENTO
del VALLE de EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA

“Joaquín Lizarraga Elkanokoa” Euskarazko Narrazio Laburren Saria 2017

Lehen Hezkuntzako 4. maila: 1. saria:

DANTZARI BIKAINA

Ibai Garrido Muñoz

Bazen behin Sarrigurengo akuariorik gertu Atlantiko ozeanoa, Kantauri itsasoa. Dantzari bikaina zen arrain doktore-doktore. Itxuraz ez zen beste arrainengandik oso desberdina. Orduan zen igerilari trebea eta barazki jalea. Batez ere algak jaten zituen beren algaren seinale, bazituen kolore arruntak haren gorputzaren puntaren puntura.

Aspaldi-aspaldian igerian ari zelarik itotzean zegoen arrain-azti bati bizi salbatu zion. Orduan, aztiak esker onez desio bat eskaini zion. Arrainak memoriarik ez zuenez, dantzatzen zuen arraia izatearen ahalmena eskatu zion.

Egunak pasa ahala, arrain dantzari haren lagun guztiei gertatu zitzaiena kontatu zion. Lagun guztion artean ozeanoaren erdi-erdian, kontzertu itzela prestatu zuten. Ozeano hartako biztanle guztiak hurbildu ziren ikuskizun xelebraz gozatzera: marrazoak, bokartak, goldfishak, izurdea, orkak, olagarroak, sardinak eta arraina... Kontzerturako sarrerak lau sardina balio zuen sardina gizajoa! Arrain gehienentzat bankuetan bizi ohi diren arraintxoak harrapatzea oso erraza da, ez zitzaien batere axolarik.

Emanaldia bikaina izan zen. Bertan egondakoek ziotenez inoiz ez zuten ikusirik “Suzko txoriaren” musika hain modu ederrean dantzatzen.

Handik aitzinean arrain-dantzaria Itxaso guztietako arrainik famatuena bihurtu zen.

Behin edo behin Sarrigurengo akuariora hurbiltzen bazara erne ibili arrain-dantzari dantzan inguruetan ibiltzea eta!!!